PAZIENTEAREKIKO INFORMAZIOA KOLONEKO RICA (Kirurgia abdominaleko berreskuratze intentsiboa) BIDE KLINIKOA

SARRERA

Ospitaleratuko zaituzte koloneko ebakuntza egiteko.

Dokumentu hauek ematen dizkizugu ospitaleratzeak iraun bitartean zer gertatuko den jakiteko.

Gogorarazi nahi dizugu **kasu bakoitza pertsonalizatua dela**, beraz, hemen adierazitakoa orokorra dela.

Ebakuntza-gelako, Erreanimazioko eta Solairuko langileak eskuragarri dituzu prozesuak iraun bitarteko dudak argitzeko (Unitateko medikuari edo erizainari kontsulta egin diezaiekezu, halakorik izanez gero).

RICA izeneko **Bide kliniko honetan (Kirurgia abdominaleko Berreskuratze trinkoa),** hau da**,** ebakuntza dela-eta zuri dagokizuna, ebakuntza kirurgikoak eragiten dituen ondorioak gutxitzeko neurriak gauzatu, arazoak gutxiagotu, errekuperazioa hobetu eta ospitaleko egonaldia laburtzea dira bere helburuak, besteak beste.

Era berean, zu bezalako pazienteen, bere senide edo zaintzaileen lankidetza aktiboa izatea eta aldi guztiak behar bezala betetzea; izan ere, hori guztia ezinbestekoa da programa hau ondo funtzionatzeko.

Hiru aldi nagusi daude:

1. Ospitaleratu aurreko prestakuntza.
2. Ospitaleratu bitartekoa.
3. Altaren gomendioak

Bide kliniko horren zehar izango dituzun langile guztiak zure duda guztiak argitu eta aldi bakoitzaren garaipenean zu bideratzeko gauza izango da.

OSPITALERATU AURREKO PRESTAKUNTZA

Pazientearen aurreko prestakuntza oso garrantzizkoa da eta pazientea baldintzarik hoberenetan dagoela bermatzen du ebakuntzaren aurretik arrisku pertsonalak identifikatuz.

Kirurgia, Anestesia eta Erizaintzako kontsultak bisitatuko dituzu zure ebakuntzaren gaineko xehetasun guztiak argitu eta zure lankidetza eskatzen duten zereginen berri izateko.

Jarraian, ospitaleratze-egunari buruzko helbururik berehalakoenak eta aurretikoenak adierazten dizkizugu:

- **Erretzen baduzu, erretzeari utzi:** garrantzitsua da ulertzea tabakoa uzteko ahalegin guztiak egin behar dituzula eta prozesu kirurgikoak iraun artean arnas arazoak gutxiagotzeak zuzen-zuzenean eragingo dizula. **Arnas Fisioterapiaren ariketak**: kirurgiak arnas arazoen arriskua handiagotzen du, hori prebenitzeko erizainak arnas muskulatura lantzen irakatsiko dizu inspirometro bidez, era berean, kirurgia aurreko egunetan aipatutako tresna egin beharreko ariketen akuilu bihurtuko da.
- **Aurre ebakuntzaren nutrizioa:** kirurgiak dirauen bitartean gastu energetikoa altua izango da eta pazientearen aurreko egoera nutrizionala oso garrantzitsua izango da infekzioei aurre egiteko baita orbaintze-prozesua eta organismoaren babesa indartzeko ere.Horiek horrela, aurre ebakuntzaren egoera nutrizional hobea lortzeko, kirurgia izan baino 10 egun lehenago proteinazko dieta aberasgarri bat egin behar da, hala izanik, sukaldaritzan koipeak saihestu behar dira.
- Halaber, kirurgia aurreko 3 egunetan (egunekoa, ordea, idorra izanez gero) hondakin gutxiko dieta bat jarraituko duzu, hala, hestean gorozki gutxiago izango dira. *Zuntzik gabeko dieta :*

BAIMENDUTAKO ELIKAGAIAK	Okela-salda, arrain zuria (egosia edo plantxan), tortilla frantziar erako tortilla, urdaiazpiko egosia, pasta, arroza, arrautzak, okelak plantxan, ura, kafea edo infusioak.
DEBEKATUTAKO ELIKAGAIAK	Frutak, barazkiak, egoskariak, barazkiak, patatak, okela eta arrain gisatuak, hestebeteak, ogia, opilak, txokolatea, fruitu sikuak, alkohola, edari gaseosoak.

- **Ezin da alkoholdun edaririk hartu:** alkohola ebakuntzaren osteko arazoekin lotuta dago.
- **Kirurgia aurreko ariketa:** ingresatu aurreko ariketa fisiko moderatua geroko errekuperazioari oso ondo doakio. Erizainak jakinaraziko dizu zer jarduera-mota egin dezakezun egoera fisikoaren arabera.

OSPITALEKO EGONALDIAN

Kirurgia egiteko sartu eta irtetean arreta ematen duen profesionalen talde sanitarioak adieraziko dizu errekuperazioan jarraitu beharreko pausoak egunez egun. Gogoratu behar duzu zure lankidetza eta inplikazioa ezinbesteko direla eboluzioan aurrera egiteko.

- OSPITALERATUTAKO EGUNA ebakuntzarako prestatuko zaio. Beharrezkoa bada, enemak emango dizkiote. Hala izanik, normaltasunez paseatu eta bizi ahal izango da.

  Ebakuntzaren aurreko baraualdian gomendatutako aldiak azalduko dizkiote; 6 ordu solidoak eta 2 ordu likido argiak (ura, infusioak, pulparik gabeko urinak, edari isotonikoak, karbono hidrato askoko edariak, tea, kafea eta zopa isuriak).
- EBAKUNTZA EGUNA ebakuntza-gelara eramango dute eta ebakuntza amaitu eta gero, Anestesia ondorengo Bizkortzeko Unitatera (URPA). Langile sanitarioek artatuko dute eta ohe/besaulkian ezartzen hasiko dira, horrela, berak nahi badu likidoak edaten has daiteke. Seguruenik, egun horretan bere gelara eramango dute berriro.
- EBAKUNTZAREN OSTEKO LEHEN EGUNA Solairuko langileek arreta emango diote eta kirurgilarien bisita jasoko du. Serumak eta zain barneko medikamentuak emango dizkiote eta ahozko dietarekin nahiz edari energetikoekin hasiko da. Kontrolerako analitika egingo diote.Besaulkian ezartzen lagunduko diote eta logelatik ibiltzen hasiko da.
- EBAKUNTZAREN OSTEKO BIGARREN EGUNA Solairuko langileek arreta emango diote eta kirurgilarien bisita jasoko du. Dietan aurrera egin, edari energetikoekin jarraitu eta toleratu arte zerumak eta zain barneko medikamentuak hartzen jarraituko du. Arian-arian ibiltzen hasiko da.
- EBAKUNTZAREN OSTEKO HIRUGARREN EGUNA Solairuko langileek arreta emango diote eta kirurgilarien bisita jasoko du. Jarduera fisikoa handiagoa izango da eta bere burua garbitu ahal izango du. Dieta toleratu eta botaka egin ez badu, ahozko medikamentuak emango dizkiote.
- EBAKUNTZAREN OSTEKO LAUGARREN EGUNA. EGUNA Solairuko langileek arreta emango diote eta kirurgilarien bisita jasoko du. Aurreko egunetan bezala paseatzen jarraituko du. Zain bideak kendu eta aho bidezko medikamentuak jasoko ditu, halaber, arian-arian kontsistenteagoa izango den dieta bat. Etxerako alta baloratu eta gomendio egokiak emango dizkiote.

Gogorarazi nahi dizugu **kasu bakoitza pertsonalizatua dela**, beraz, hemen adierazitakoa orokorra dela.

ALTAREN GOMENDIOAK

Zuri dagokizun ALTAren planifikazioa ardura horren medikuek eta erizainek aztertu eta balidatuko dute.

Alta-eguna aurretik jakinaraziko dizu zure medikuak, horren ondorioz, beharrezkoa balitz etxera edo osasun-zentrora joateko guztia prest izango duzu garaiz.

RICA Bide klinikoaren jarraipen taldeak harremanetarako telefono-zenbakia bat emango dizu altaren lehen 24 orduetan izan dezakezun edozein duda kontsultatzeko.

Jarraipen-taldeak etxerako altaren berri emango dio osasun-zentroari, halatan, hurrengo 48 orduetan jarraipen bat egin diezazuten.

Ospitaleko altak irizpide eta helburu espezifikoak ditu, eta zuk bete orduko alta eman diezazukete.

Irizpideak hauexek dira:

- Aho analgesiaren bidezko minaren kontrol eraginkorra
- Likidoen eta dietaren tolerantzia, goragale eta oka egin gabe.
- Mugikortasun autonomia.
- Ostomia erabileraren irakaspen-programa osotua, hala eskatuko balu.